## BLOGA
## BLOG

06

**DEFINIZIOA**
**Zer da?**

Blog edo bitakora bat Interneteko idazketarako gunea da. Kronologikoki ordenatuta dago, berrienetik zaharrenera. Blogaren osagai nagusiak bi dira: sarrera edo "post-ak" (blogaren egileak edo egileek aldizka argitaratutako testuak edo artikuluak) eta iruzkinak (egileen eta blogeko irakurleen arteko elkarrizketa ezartzen duten testu edo artikuluak). Egileak/egileek nahi duena/dutena argitaratuta uzteko askatasuna du/dute beti.
Beste hainbat elementuk —eskuarki alboetako menuetan bilduak— aukera gehigarriak ahalbidetzen ditu: edukiak indexatzea, bloga antzeko beste blog batzuekin lotzea, etab.
Adierazteko eta partekatzeko (iritziak, informazioak, materialak, etab.) modu berri bat da, lineako komunikazio-estilo berri baten ondorioz sortua.
Doan erabiltzen den sistema hori oso sinplea da eta, beraz, denon eskura dago, eta elkarrekintzarako aukera handia ematen du.

**DEFINICIÓN**
**¿Qué es?**

Un blog o bitácora es un espacio de escritura en Internet ordenado cronológicamente, de más reciente a más antiguo. Sus componentes fundamentales son las entradas o "post" (textos o artículos publicados periódicamente por el autor o autores del blog) y los comentarios (textos o artículos que establecen diálogos entre autores y lectores del blog) el/los autor/es conserva/n siempre la libertad de dejar publicado lo que se considere pertinente.
Otros elementos, generalmente situados en menús laterales, permiten opciones adicionales: indexar los contenidos, vincular el blog con otros blogs afines...

Supone una nueva forma de expresarse y de compartir (opiniones, informaciones, materiales…) fruto de un nuevo estilo de comunicación en línea.
Este sistema de uso gratuito, dada su sencillez está al alcance de todos y permite una gran interactividad

**BALIABIDEAREN ERABILERA**
**Nola erabiltzen da?**

Lehenik eta behin, blogaren funtzio didaktikoari buruz gogoeta egin eta, horren arabera, erabakiak hartu behar dira. Bloga eskola-komunitateko komunikazio-tresna bilaka daiteke, eta komunitate osoa osatzen duen edozein eragilek kudea dezake: irakaslearen bloga, gelakoen bloga, ikaslearen bloga, klaustrokoen bloga, guraso-elkartekoen bloga, etab. Baina premia funtzionalagoetarako ere erabil daiteke: proiektu jakin bateko bloga, gai jakin batzuetarako bloga, diziplina arteko jarduera jakin bateko bloga, etab.

Hainbat webgunek blogak sortzeko eta ostatatzeko doako zerbitzua ematen du: kontu bat ireki behar da (irekiera izapidetzeko helbide elektronikoa eduki behar da) eta ondoren bloga sortzen da.

Sarrera (edo iruzkina) irudiak, bideoak, loturak edo audio-artxiboak txertatzeko aukera ematen duen multimedia dokumentu bat da.

**UTILIZACIÓN RECURSO**
**¿Cómo se usa?**

En primer lugar hay que reflexionar y tomar decisiones sobre la función didáctica del blog. Un blog puede convertirse en un instrumento comunicativo gestionado por cualquiera de los agentes que configuran toda comunidad escolar: el blog del profesor, el blog de la clase, el blog del alumno, el blog del claustro, el blog AMPA… Pero también puede responder a una necesidad más funcional: el blog de un proyecto, el blog de una temática, el blog de una actividad interdisciplinar…

Existen diferentes sitios web que ofrecen servicio gratuito de creación y alojamiento de blogs: se abre una cuenta (debiendo disponer de un correo electrónico para tramitar la apertura) y posteriormente se crea el blog.

Una entrada (o un comentario) es un documento multimedia que permite insertar imágenes, vídeos, enlaces o archivos de audio.

**IKASGELARAKO GOMENDIOAK**

Blog batean artikuluak edo iruzkina argitaratzearen ondorioz, egiletza-eskubideak sortzen dira. Eta ikasleek informazio-iturriak egokiro erabiltzea ez da kontuan hartu beharreko gauza bakarra. Horrez gain, egileak adingabeak badira (eta betiere irudi-eskubideen kudeaketaren osagarri), gurasoen edo legezko tutoreen baimena izan behar da ikasle horiek sortutako materialak helburu hezigarriz erabiltzeko.

Blog bat sortzea bi modutan lan daiteke: irakasleak lehenago sortuta edo ikaslearen alfabetatze digitalari lotutako prestakuntza-eduki gisa txertatuta.

Blogean artikulua argitaratzea eskolan lantzeko gairen bati helduta hasten den segida didaktikoaren azken fasea da. Artikuluaren kalitateari eman behar zaio lehentasuna kantitatearen aldean.

Iruzkinak egiteko, aldez aurretik sarrera edo “post-a” irakurri eta hari buruzko gogoeta egin behar da. Iruzkinak ez dira ikasle bat beste baten blogean ibili izanaren froga hutsa; aldiz, edukia eta gogoetak erantsi behar dituzte eta errespetuzko elkarrizketara bultzatu.

Bestalde, bloga kanpoko iruzkinak jasotzera irekita dagoen baliabidea da. Horrek komunitatera irekitzea errazten du, baina arriskuak ere baditu. Eta arrisku horiek ardura duen irakaslearen (lehenik eta behin) eta eskola-komunitatearen erantzukizuna dira.

**RECOMENDACIONES PARA EL AULA**

La publicación de artículos o comentarios en un blog supone la existencia de unos derechos de autoría. Y no sólo hay que tener en cuenta el uso adecuado de las fuentes de información por parte de los alumnos. Además, si los autores son menores (y como complemento a la gestión de los derechos de imagen) se debe disponer de las autorizaciones por parte de sus padres o tutores legales para utilizar

sus producciones con finalidad educativa.

La creación de un blog puede ser una tarea previa del docente o integrarla como contenido formativo vinculado a la alfabetización digital del alumno.

La publicación de un artículo en un blog es la fase final de una secuencia didáctica que se inicia a partir del abordaje de alguna temática escolar. La calidad del artículo debería prevalecer a la cantidad.

La elaboración de comentarios implica la lectura y reflexión previa de la entrada o "post". Los comentarios no son simples verificaciones del paso de un alumno por el blog de otro, sino que deben aportar contenido, reflexiones e incitar al diálogo respetuoso.

Por otro lado, el blog es un medio abierto a recibir comentarios exteriores, lo cual favorece la apertura a la comunidad pero implica también una serie de riesgos que son responsabilidad del docente a cargo (en primera instancia) y de la comunidad escolar.

**GOMENDATUTAKO GUNEAK**
**Non aurki dezaket?**

**WordPress**
http://es.wordpress.com/
Edukia kudeatzeko sistema, blogak sortzera bideratua eta GPL lizentziaren bitartez garatua. Bete-beteko sarrera-editorea eta txantiloi ugari ditu, baina artxiboak biltegiratzeko ahalmen mugatua du. Software librea denez gero, prestazioak hobetzen dituzten plugin berriak sortzen dira etengabe.

**WordPress-en blog bat sortzeko tutoriala.**
José Ramón del Pino Ruiz-ek egina. Profesor Tierno Galván BHI, Alcalá de Guadaira.
http://www.slideshare.net/jrdelpinoruiz/crear-un-blog-con-word-press

**Blogger**
http://www.blogger.com
Pyra Labs-ek blogak sortzeko egindako zerbitzua. Googlek erosi zuen eta harrezkero erabilera Google-ko

kontu bati lotuta izaten da. Sarrera-editorek aukera mugatu samarrak ematen ditu, baina artxiboak gordetzeko ahalmen handia du eta lehendik dauden txantiloiak aldatzeko aukera ematen du.

**Blogger-en blog bat sortzeko tutoriala.**
Ana Ovando grekoko irakasleak egina. Violant de Casalduch BHI, Benicássim (Castelló).
http://www.slideshare.net/ovando/crear-blogs

**Sakontzeko**
**Blog: tu diario personal**
http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-2251/es/contenidos/informacion/ocio_cult_blog/es_16153/ocio_cult_blog.html#
Blogak sortzeari buruzko web-orria, Euskadiko gazteen atarikoa. Blogak euskaraz sortzeko hainbat aukera ematen du.

**Aulablog**
http://www.aulablog.com/
Blogen erabileran interesatuta dauden irakasleentzako gunea. Blogotekan blog hezigarrien adibide asko daude, sailkatuta eta erregistratutako erabiltzaileek balioetsita.

**Honako honi buruzko bloga: Roa de Cuero 2006 hezkuntza-blogen 1. topaketa: multimedia elementuak blogean**
http://roamultimedia.blogspot.com

Blog hezigarrien adibideak
**Vida y matemáticas**
http://profeblog.es/pedro/
Matematikari buruzko blog hezigarria, Pedro J. Martínez-ek egina

**Blog de conocimiento del medio del CEPR Pablo de Olavide**
http://blogconocimientomediopolavide.blogspot.com/
Arlo jakin batekin (ingurunearen ezaguera) eta ziklo jakin batekin (Lehen Hezkuntzako hirugarrena) lotura duten materialak biltzera bideratutako blog hezigarriaren adibidea.

**SITIOS**

**WordPress**

**RECOMENDADOS**
**¿Dónde lo encuentro?**

http://es.wordpress.com/
Sistema de gestión de contenido enfocado a la creación de blogs, desarrollado bajo licencia GPL. Presenta un editor de entradas muy completo, muchas plantillas, pero una capacidad limitada de almacenar archivos. Al tratarse de programario libre, continuamente aparecen nuevos plugin que mejoran sus prestaciones.

**Tutorial para crear un blog en WordPress.**
Elaborado José Ramón del Pino Ruiz. IES Profesor Tierno Galván, Alcalá de Guadaíra.
http://www.slideshare.net/jrdelpinoruiz/crear-un-blog-con-word-press

**Blogger**
http://www.blogger.com
Servicio creado por Pyra Labs para crear blogs. Tras su compra por parte de google, su utilización se vincula a una cuenta en google. Su editor de entradas ofrece unas posibilidades un tanto limitadas; en contrapartida, su gran capacidad de almacenamiento de archivos y la posibilidad de modificar las plantillas existentes.

**Tutorial sobre la creación de un blog en Blogger**.
Elaborado Ana Ovando, profesora de griego. IES Violant de Casalduch, Benicássim (Castellón).
http://www.slideshare.net/ovando/crear-blogs

**Para profundizar**
**Blog: tu diario personal**
http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-2251/es/contenidos/informacion/ocio_cult_blog/es_16153/ocio_cult_blog.html#
Página del Portal de la Juventud de Euskadi dedicada a la creación de blogs. Se presentan diferentes opciones para crear blogs en euskera.

**Aulablog**
http://www.aulablog.com/
Espacio para docentes interesados en el uso de los blogs. En su blogoteca hay muchos ejemplos de

blogs educativos, clasificados y valorados por los usuarios registrados.

**Blog del 1er encuentro de edublogs Roa de Cuero 2006: elementos multimedia en el blog**
http://roamultimedia.blogspot.com

Ejemplos de Blogs educativos
**Vida y matemáticas**
http://profeblog.es/pedro/
Blog educativo de matemáticas, elaborado por Pedro J. Martínez

**Blog de conocimiento del medio del CEPR Pablo de Olavide**
http://blogconocimientomediopolavide.blogspot.com/
Ejemplo de blog educativo destinado a recopilar materiales relacionados con un área (conocimiento del medio) y un ciclo (tercero de primaria).